

BALOREZKO PROPOSAMENA

Nahia Idoate, Izaro Silvan, June Zabaleta eta June Arcelus taldea osatzen dugu. Gure asmoa, Euskadiko batxilergoko gazteen artean apunteak elkarbanatzea da. Horretarako, webgune bat sortzea erabaki dugu eta bertan ikasleak apunteak eskuragarri edukitzeko. Horrez gain, gure proposamenak hainbat atal edukiko ditu; adibidez, apunteak errazago egiteko ahulkuak eta hainbat azalpen.

Galdetegian oinarrituta, ikusi dugu ikasleek zailtasunak dituztela apunteak egiterako garaian eta horretarako zailtasun horiek gainditzeko euskarri hau eskuragarri egongo da. Hortaz aparte, ikasleren batek laguntza eskaintzeko aukera paregabea izango du bere apunteak webgunean jarriz.

Euskaraz horrelako webgunerik aurkitu ez dugunez, bat sortzea erabaki dugu euskara bultzatuz eta zabalduz. Gainera, apunteak digitalki egongo direlako paperaren erabilera eta kutsadura murriztuz.

Ikasle bakoitzak apunteak pertsonalizatu ahalko ditu, izan ere, atal ezberdinak egongo dira. Atal horietan, ideiak jaso eta modu pertsonalean erabiltzeko aukera izango du plataforma honekin bai edukiari dagokionez, baita itsurari dagokionez ere, adibidez; eskema moduan edo testu moduan.

Beste aldetik, lana erraztuko luke. Izan ere, beste apunteak eredutzat hartuz askotan ideia nagusiak errepikatu egingo dira horrela ez da beharrezkoa testua irakurtzea behin eta berriro. Gainera, ikasteko teknikak behin jakinda hurrengoetan aplikatzeko gai izango da ikaslea.

Balio kualitatiboari dagokionez, diseinu ez ohikoa izango luke, originala delako, apunteak eguneratuak egongo direnez beti modan egongo den webgunea da.

Balio kuantitatiboari dagokionez, diru-sarrerak edukiko genituzke, hauen artean: Euskal Herri osoko paper dendak patrozinatuko lirateke; adibidez, Hostoak ala Urratsak. Bestalde, webgunean bertan propagandako anuntzioak aterako lirateke horrela, lortutako diruaren %80a guretzat izango litzateke. Beste %20a beraien apunteak igoko dituzten pertsonen irabaziak izango lirateke.

Lehen aipatu bezala, webgune hauek gazteleraz bakarrik aurkitu ditugunez euskaraz egitea erabaki dugu, izan ere, Euskal Herriko ikastoletan edukia euskera hutsean ematen da. Beraz, esan dezakegu euskuragarritasuna eskainiko genukeela.